

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Berreskuratze eta Erresilientziarako Mekanismotik datozen 5.120.000 euro bideratuko ditu , udal hondakinak eta ontziak kudeatzeko

Laguntzak bi deialditan banatuta daude, eta toki-erakundeei zein enpresa pribatuei zuzenduta daude, ekonomia zirkular baterako trantsizioa babesteko

Asteazkena, 2022ko Apirilaren 13a

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak tokiko erakundeentzako eta enpresa pribatuentzako Berreskuratze- eta erresilientziarako-mekanismotik datozen 5.120.000 euroko laguntzak deitu ditu, hondakinak kudeatzeko. Laguntza horien helburua ekonomia zirkular baterako trantsizioa babestea da, sektorean inbertituz eta 2022tik 2026ra bitarteko ekitaldietan baliabideak eraginkortasunez erabiliz.